

'Arrasateko kooperatibagintzaren erronkak eta dilemak. Fagor Etxetresnak kooperatibaren krisiaren ondotik' izeneko liburua kaleratu du Lanki ikertegiak

2015/11/19

Arrasateko kooperatibagintzaren dilemak eta erronkak. Fagor Etxetresnak kooperatibaren krisiaren ondotik izeneko liburua kaleratu du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Lanki ikertegiak. Lanki Koadernoan 11. zenbaki honen ardatza da Igor Ortega eta Leire Uriarte ikertzaileek egindako ikerketa Fagor Etxetresnaren 2013ko itxieraren ondorioen gainean. Liburuaren bi edizio egin dira, bata, euskaraz eta, bestea, gazteleraz.

Lanaren helburuak dira, batetik, Fagor Etxetresnaren krisiaren gakoak ulertzea eta, bestetik, ateratzea irakaspenak kooperatiba horren esperientziatik. Horretarako, liburuak jasotzen ditu hainbat kooperatibetako arduradunek eta bazkideek Arrasateko esperientzia kooperatiboaren erronken eta dilemen inguruan egindako hausnarketak.

Liburua kaleratu da Lanki Koadernoak bilduman. Bilduma horretan, urtean behin edo urte eta erdian behin, kaleratzen dituzte kooperatibismoari edo lankidetzari buruzko hausnarketak.

- **Prezioa:** 10 euro.
- **Orri kopurua:** 39.
- **Non erosi:** liburua eskuratu nahi izanez gero, jarri harremanetan Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearekin: administrazioa.huhezi@mondragon.edu
- **Lankiren beste argitalpen batzuk:** [Lankiren argitalpenak](#).



Lanki koadernoan 10. eta 11. zenbakien azalak.